

## **EUDELEK zigorren orde z komunitatearen alde lan egiteko udalen arteko lankidetzarako baldintzak adostu ditu**

Hau da Eudelek gaur Tolosan ospatu duen Batzorde Agintariaren bilera onartu den adostasunetariko bat

- **Esaterako, bide-segurtasunaren aurkako delituen ondorioz zigortutakoek komunitatearentzat lan egin ahal izatea erraztea da helburua; jarri zaion zigorraren orde (zigor arin edo ez oso larriengatik), komunitatearen mesederako hainbat egunez edo hilez lan egitea, alegia**
- **Udalek zigortutako pertsonentzat komunitatearen alde egiteko betekizunen katalogoa landuko dute eta zigortuek, haiei esleituko zaizkien betebeharrak burutu ahal izateko, beharrezkoak izango dituzten baliabide material eta teknikoak jarriko dituzte**
- **Udal Legeari dagokionez, egutegi bat adostu dute. Hartan, otsailak 28 da Batzorde Betearazleko kideek alegazioak aurkezteko epea. Eudelen jarrera jasoko duen dokumentu bakarra idatziko da eta, martxoan, Lehendakariari aurkeztuko zaio**
- **Bestetik, Eudelek Haitiko herriari laguntzeko martxan jarri duen Larrialdietarako Laguntza Fondora Udalek ekarritakoa Gurutze Gorriari emango zaio. Guztira, 61.000 euro bildu dira orain arte (gehiago ere izatea espero da)**



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**Tolosa, 2010eko otsailak 4.** Euskadiko Udalen Elkartearen- EUDEL Batzorde Agintaria bildu da gaur, Tolosan, eta udalen arteko lankidetzarako baldintzak adostu dituzte komunitatearen aldeko lanek zigorrek ordeztearen inguruan.

Esaterako, bide-segurtasunaren aurkako delituen ondorioz zigortutakoek komunitatearentzat lan egin ahal izatea erraztea da helburua; jarri zaion zigorraren ordezt (zigor arin edo ez oso larriengatik), komunitatearen mesederako hainbat egunez edo hilez lan egitea, alegia. Gainera, zigorrek etxetik gertu betetzea erraztu nahi da horrela, eta betebeharrak bakoitzaren heziketaren, ezaugarrien eta egoeraren arabera lan baten bitartez burutu ahal izango da.

2007an adin txikikoekin martxan jarri zen lan-ildotik jarraitu nahi du Eudelek lankidetzaren honekin; berrogeita hamar udal inguru atxiki dira aurren, EUDELen eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Departamentuaren arteko hitzarmen horretara. Haren helburua, legea hautsi zuten adin txikikoentzat programa hezitzailea eta soziala sustatzea zen, zigorraren ordezt komunitatearen aldeko “gizarte ekintzak” burutz.

Kasu horretan, honako konpromisoak hartu zituzten Udalek:

1. Zigortutako pertsonentzat komunitatearen alde egiteko lanen katalogoa prestatzea.
2. Zigortutakoek haiei esleituko zaizkien lanak burutzeko baliabide materialak eta teknikoak jartzea.
3. Eskainitako betebeharraren xehetasunak ematea: jarduera-sektorea, eskainiko diren plazak, burutu beharko diren lanen deskribapena, zein egunetan eta zein ordutan burutuko diren, lana egiteko eduki beharko den kualifikazioa edo ikasketa-maila.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

## **Udal Legea**

Udal Legeari dagokionez, egutegi bat adostu dute. Hartan, otsailak 28 da Batzorde Agintariko kideek iragan urtearen bukaeran EUDELEk Udalei entregatu zien Oinarrien Dokumentuari alegazioak aurkezteko epea. Eudelen jarrera jasoko duen dokumentu bakarra idatziko da ondoren eta, martxoan, Lehendakariari aurkeztuko zaio hura.

Adostu diren ekintzen artean, euskal udalerrietako alkateei oinarrien dokumentu hori igortzea dago.

## **Haiti**

Bestetik, EUDELEk Haitiko herriari laguntzeko martxan jarri duen Larrialdietarako Laguntza Fondora Udalek ekarritakoa, oraingoz 61.000 euro dira guztira, baina gehiago ere izatea espero du EUDELEk. Batzorde Agintariak fondo horiek Gurutze Gorriari ematea adostu du.